

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak Tafallan hasi du eskualde mailako zerbitzu berriak dituen Plan Soziosanitarioaren hedapena

Osasun Departamentuak eta Eskubide Sozialetako Departamentuak baliabideak koordinatuko dituzte pertsona bakoitzari egokitutako arreta integrala eskaintzeko

Astelehena, 2018.eko martxoak 19

Nafarroako Gobernuak Tafallan abiarazi du gizarte eta osasun arloetako arreta integraturako proiektua. Laguntza eskatzen duen pertsona bakoitzaren beharretara zuzendutako gertuko zerbitzu integrala eskaintzea da bi departamentuen arteko [baterako proiektu](#) honen helburua, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari gerente Inés Francesek eta Osasun Departamentuko zuzendari Luis Gabilondok astelehen honetan adierazi duten bezala.

Proiektu honen bitartez, Departamentu bakoitzaren eskuduntzak gainditzen dituen prestazio sanitario eta sozialen multzo integratu bat eskaini nahi zaie ezaugarri berezietako zainketa-premia konplexuak dituzten pertsoneri, bi zerbitzuen aldibereko ekintza sinergikoaz profitatzeko aukera izan dezaten.

Osasun Departamentuak eta Eskubide Sozialetako Departamentuak Tafallako eskualdea hautatu dute Planaren hedapena hasteko, eskualde honek duen kokapen geografikoagatik, Plana abian jartzeko eskaintzen dituen baliabide asistentzialengatik eta koordinazio soziosanitarioaren arloan duen esperientziagatik.

Plana zonaldeko 26 udalerriri (44.552 biztanlerekin) nahiz Tafallako eskualdeko –Tafalla, Erriberri, Peralta, Carcastillo eta Artaxoa– profesional sanitarioei eta gizarte-zerbitzuetako mankomunitateei aurkeztu zaie dagoeneko. Datozen hilabeteotan burutuko den hedapen osoaren ondoren, ekintzei buruzko balorazioa eginen da Nafarroako beste eskualde batzuetara zabaldu baino lehen.

Arreta Soziosanitario Integratuko Proiektuak, behar sanitario edo sozial handiak dituzten pertsoneri osasun arlotik zein gizarte arlotik sarbide izatea bermatuko dien eredu berri bat ezarriko du, eskualdeko pertsoneri eguneroko jardueretan ahalik eta autonomia-mailarik eta bizi-kalitaterik handiena errazteko asmoz, baita zaintzailerik ere, etxean ahalik eta denbora gehien egoteko aukera izan dezaten, ospitalizazioen etengabeko beharra eta instituzionalizazioa saihestuz.

Arreta-eredu berri honetarako, eskualde mailako zerbitzu soziosanitario berriak garatu behar dira, tokian tokiko osasun arloko nahiz

gizarte-zerbitzuetako profesionalei sostengua emateko. Profesionalek lan-metodo berriak eta informazio-sistema berriak izanen dituzte.

Bi ikuspuntuetatik egindako baterako balorazio integralaren ondoren, erabiltzailea etxetik hurbilen dituen inguruko zerbitzuez baliatu ahalko da. Hauexek dira ekintzen xedeak: ahultasunezko egoerak prebenitzea, funtzionalitatearen susperraldia edo mantenimendua sustatzea norberaren autonomia areagotzeko, sufrimenduak arintzea eta gizarteratzea erraztea.

Onuradunak osasun eta gizarte arloetako beharrak dituzten herritarrak dira. Honelako kasuetan, osasun zein gizarte arazoak eman ohi dira aldi berean, autonomia funtzionalari dagozkionak zein nahikotasun instrumentala edo gizarte-harremanak eragozten dituztenak. Segmentu honetan, mendekotasun-maila altua duten edozein adinetako pertsonak daude, baita bakarrik bizi diren 80 urtetik gorako adinekoak, ohean etzanda dauden gaixo kronikoak, nahiz gaixotasuna edo gizarteratzeko zailtasunak dituztenak ere.

Osasun arloko nahiz gizarte-zerbitzuetako profesionalek metodologia bakarra aplikatuko dute, prebentziorako, hezkuntzarako, autozainketetarako nahiz errehabilitaziorako jarduerak barne harturik. Horrekin batera, pertsona zaintzaileak ere kontuan hartuko dira, prestakuntza eta laguntza arloko ekintzen bitartez. Kasuen aldizkako jarraipena egin ondoren, metodoak helburuak eta emaitzak neurtzeko indizeak ere aurreikusiak ditu, bereziki erabiltzailearen gaitasun funtzionalari dagokionez.

Bi esku-hartze maila

Planak biztanleria bi mailatan artatuko du: lehen mailako arretan, oinarrizko zonaldeetan dauden baliabide sanitario eta sozialen laguntzaz, eta eskualde mailan. Azken kasu honetan, horretarako eratutako talde koordinatzailea arduratuko da lehen mailako baliabideak gainditzen dituzten kasurik konplexuenak artatzeaz.

Eskualdeko talde koordinatzaileak barrutiko baliabide soziosanitario espezifikokoak kudeatuko ditu: etxez etxeko laguntzarako taldea, kasurik konplexuenetako etxeko laguntza indartuko duena; susperraldi nahiz errehabilitaziorako baliabideak (egoitza barneko susperraldirako oheak, aldi bateko egonaldietarako egoitzetako plazak, errehabilitaziorako eguneko zentroak eta etxeko errehabilitazio funtzionalerako laguntza); eta pixkanaka-pixkanaka garatuz joango diren beste laguntza-baliabide batzuk (teleguntza, Eguneko Zentroetara joateko garraioa, botiken prestaketa indibidualizatua farmaziekin batera, Adinekoen Zaintzaileen Eskola, geriatriako eta barne-medikuntzako kontsultore espezialistak, zainketa aringarrietako zerbitzuen deszentralizazioa edota etxeko ospitalizazioa eta errentako laguntza orteoprotetikokoak). Laguntza hauen bitartez, erantzuna emango zaie egoerarik konplexuenei.

Ahultasunaren eta mendekotasunaren arloko estrategia prebentiboa indartzeko xedez, arreta zuzenaren osagarri gisa, lagundutako sareko hainbat lan-ekintza aurreikusi dira oinarrizko zonaldeetan. Lehenik eta behin, Esku-Hartze Komunitarioko Kontseiluetan oinarrizko bost zonalde eratzea proposatu zaie toki-erakundeei. Organo honetan parte hartuko dute toki-erakundeen, ikastetxeen, adinekoen elkarten eta herritarren elkarten ordezkariak, osasuna sustatzeko teknikari batekin batera, ekintzak lehenesteko, programan parte-hartzeko eta boluntariora nahiz elkar-laguntzarako sareak bultzatzeko asmoz.